

2. ERANSKINA. KUDEAKETA POLITIKA

Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak beregain hartzen du bai kudeaketa-sistema bat ezartzeko beharrezko langileak eta azpiegiturak jartzeko konpromisoa, bai prozesu horretan lider izateko erantzukizuna.

Kudeaketa-politika hau erreferentziatzeko esparrua izan behar da Zuzendaritzak aldian-aldian ezar eta berrikuntza kalitatearen helburuak. Helburu horiek zehatzak eta neurgarriak izan beharko dira, bezeroari erreparatu beharko diote, eta, nolatan ere, honako helburu orokor eta konpromiso hauekin bat etorri beharko dira:

- Ikerketan parte hartuko duen partaidearen eskubideak, segurtasuna eta ongizatea bermatzea, eta, horretarako, printzipio etiko, metodologiko eta legezkoak era egokian aplikatzea.
- Batzordearen lehentasunezko bezeroen gogobetetasuna bermatzea: azterketetan parte hartzen duten partaideak, CEIm-Ek ebaluatuta.
- Ikertzaileei, irabazi-asmoa duten eta ez duten sustatzaileei, osasun-zentroetako kudeatzaileei, Berrikuntza + Ikerketak + Osasuna Euskal Fundazioari (B+I+O eusko fundazioa), ikerketa-institutuei, unibertsitateei eta ikerketaren gainerako etika-batzordeei beren beharrianak estaltzea, ahal den neurrian, betiere azterketako partaideen beharrianen kontra egin gabe, azken horiek baitira lehentasunezko bezeroak.
- Batzordearen baitan hartutako erabakien independentzia bermatzea, araudian ezarritakoaren arabera.
- CEIm-En jardueran parte hartzen duten profesional guztiei nahiz ikertzaileei prestakuntza ematea eta egokitzea.
- Prozesuetan oinarritutako kudeaketa garatzea, batzordean lan egiteko oinarri gisa, kontuan hartuta etengabeko hobekuntza dela helburuak lortzeko tresnarik egokiena; halaber, prozesu bakoitzari lotutako arriskuak antzemateko ahalegina egin beharko da, prozesu horrek emaitza okerrak izatea eragin badezakete; beraz, arrisku horien garrantzia zehaztu beharko da, eta arriskuak saihestu edo murrizteko planifikatutako ekintzak ezarri.
- Indarreko legedia eta aplikatu daitezkeen printzipio etikoak betetzea.
- Estatu-mailako beste CEIm batzuekiko partaidetza eta koordinazioa sustatzea.

Hori guztia UNE-EN-ISO 9001:2015 arauan oinarritutako Kudeaketa Eskuliburu batean gauzatuko da.

CEIm-Eko buruak (edo buruordeak) eta Zuzendaritzak berariaz bermatuko dute Kudeaketa Politika hau langile guztiei jakinarazten zaiela eta langile guztiek onartzen dutela, eta politika hori une oro egongo dela eguneratuta.

2022ko otsailaren 21a

Iciar Alfonso Farnós
E-mIBE lehendakariordea

CARLOS
MARIA DEL
PIL ROMEO
CASABONA -
CASABONA -
17845474G
Fecha: 2022.03.20
21:45:48 +01'00'

Carlos Romeo Casabona
E-mIBE lehendakaria

Marian Ibarondo Unamunzaga
Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria
Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza